
BEGIRA

IKUSI!

Itz... berba ederra da. Nor da begira dagoana, nor da begiratzaillea, ta nora begira dago...?

Personeak begiak daukaz, ostopo egin ta jausi ez dedin. Izan bere, samingarria litzake, persona itsua izan, ta nora ezean ibilkeran, arri, zugatza nai ate-ertza jo ta muturrak apurtzea.

Baiña ez, era orretan ibilteko jaiok ez gara. Biziaren egilleak, gorputz ta gogoz, ondo, orniduta, aurkeztu ginduzan lurrean.

ELBURUA

Gorputzak bere zentzun zoragarriak daukaz ta gure gogo ta nortasuna, gure gidari diran almen izugarriak: "Gure umearen begiak, gure umearen belarriak lakorik ez dago, artista bat izango da ori, gazte izatera eltzen danean"Uxela, uxela...!

Personearen zentzun ta almenak zeregin aundi bat ekarri dabe mundura... kusi, entzun, asmau... Ni zertarako naz? Nire elburua zein da? Samiña, neke-miña, negarra? Utikan... Olakorik ez...

ZENTZUNAK ZERTARAKO?

Egille, berez, on utsa danak, elburu ain gogorrik ezin eikioen jarri bere maitasun utsezko seme-alabei. Betira arte maite ditu almen ederrezko izaki argidunak.

Personeak zentzunak ta almenak daukaz, bere bizitza osotuteko.

Beraz, iturri bi daukezela dirudi bere bizitza landu ta osotuteko. Ta bizitza guztia, ementxe, lantzen da.

Entzun, ikusi, gosea asmau ta eskuen bidez lan egiten dau, gorputza, bertan bera, il ez dedin.

Biziari eutsi egin nai deutso, barruko bizi egarriari dagokion eran.

Gauza egokia ta zuzena da, esker utsean, artu ditugun zentzunak, euren arazoak betetuten erabiltea, gure bizitz zeregiña osotu daiten.

IRU ALMEN

Ori dala-ta, personea zurtasun guztiaz dabil solo, zelai, baratza, arru ta mendiak ta burdin miak landuten, errien bizia ilduratu ta galdu ez dedin.

Personeak ba-ditu beste iru almen eder-ederrak. Antxiñako jazoerak gogoratzeko argia, bizitzaren barri ikasteko adimena ta ona dana aukeratu ta maitatzeko naimena.

Argi ikusten danez, gizona ez da edozelango izaki barregarria... Gizona lurraren azala landu ta lur-barruko miak menperatu ta gizarte bizitza on bat eratuteko da bardintasan, anaitasun ta askatasun bidean.

ATSEDENA

Almen eder onen bidez, ikusi, ikasi ta landu egingo dau euskaldunak bere ingurua ta bere lurra.

Au da izan bere, jatorriz, sortzez, artu eban jakiturizko agindua... Ta lur onek dirautso euskaldunari: Arduraz ta ondo landu nozulako, anaitasun-giroan, zure bizi egarria asetuteko, beste atsedeen bizitza bat dago... ez nekezkoa, bai pozezkoa, ez miñezkoa, bai irripar gozoz atsedenezkoa.

BASETXEA

Lurra begira dago.
Giza eskua nai dau
burdin-atxurragaz;
atxurkada min ordez
gaiña jantziko dau
arto loreagaz.

Baserri orma zuri,
baserri teilla gorri
garitza erdian;
ez da burdiñezkoa,
ogi zurizkoa da
bakea etxian.

Paulin